EUSKALTZAIN URGAZLEA
ETA EUSKALTZAINDIAREN ARABAKO ORDEZKARIA

ROBERTO **GONZÁLEZ DE VIÑASPRE**

EUSKARAK ARABAN DUEN EGOERAZ HAUSNARREAN

Urrun dago XVIII. mendea, Araban euskara galbide azkarrean abiatu zen garaia. Era berean, oso atzean geratu zaigu XIX. mendea, euskararen atzerapen-prozesua etengabe iraunarazi zuena, harik eta Arabako iparraldean, zenbait bazterretan, zokoratua geratu arte. Mende horren azken hamarkadetarako, nekez aurki zitekeen -Aramaio, Baranbio, Legutio eta Zigoitiaz (neurri apalagoan, Laudioz) gainera- euskarari trinkotasunez eusten zion biztanle-gunerik. Ahitzen eta itzaltzen ari zen, halabeharrez, Lazarragaren hizkuntza arabarren ahotan, menturaz betiko. Bazirudien gertaerek arrazoia emango ziotela Wilhelm von Humbolt-i. Jakintsu hark euskara XIX. mendea bukatu aurretik desagertuko zela iragarri zuen, eta halako patuak ezinbestekoa ematen zuen Araban.

Halakoxea zen egoera, nahiz eta Euskal Pizkundearen garaian, euskararen aldeko keinurik ez zen falta izan erakunde publikoen aldetik. Gogora ekartzekoa da nola, 1882ko azaroan, Arabako Aldundiak lehenetsi zuen euskara irakastea Gasteizko Bigarren Hezkuntzako Institutuan, hau da, gaur egun Eusko Legebiltzarra dagoen eraikinean. Institutuko zuzendariaren eskaera zen "[que] se le manifiestara la enseñanza de cuál de las lenguas vivas, francés, alemán o inglés, será más conveniente en dicho establecimiento". Emandako erantzunean, honakoa nabarmendu zuen Aldundiak: "la corporación vería con sumo agrado que fuese preferida la lengua euskara, por ser la que hablaron nuestros antepasados y que aún se conserva en algunos pueblos de la Provincia".

Antzeko jazoera gehiago lirateke aipagarri, hala nola, 1895eko abenduan, Arabako Aldundiak herri euskaldunetako maisu-maistrek euskara jakitea eskatu zuenekoa: "se exija como condición indispensable el conocimiento del vascuence a los maestros y maestras de escuelas públicas que hayan de regentarlas en pueblos donde se mantiene vivo aquel idioma".

Beude hor halako jakingarriak. Arabako erakunde gorenak euskararekiko hartzen zuen jarrera herri mailako uste-iritzien nolabaiteko isla ere datekeelakoan ekarri ditut hona. Besterako ere balio dezakete: mendebetean aurrerapauso eskerga emana dela erakusteko.

XX. mendean, ondotxo ezaguna dugu euskararen ibilbidea gurean, eta zer kalte egin zion euskararen egoerari diktadura-urteetako basamortu malkarra gurutzatu beharrak. Araban, 70eko hamarkadan, oso egoera makalean iritsi zen euskara. Pedro Irizarrek bildu eta 1973-1975 bitartean argitaratu zituen datuen arabera, 1.900 euskaldun omen ziren Arabako eremu euskaldunean, nagusiki Aramaion eta Legution. Guztira, haren estimazioan, Araban bizi zirenen %9 har zitezkeen euskalduntzat -euskaldun berriak barne- eta horietatik gehienak eremu erdaldunean zeuden, Gasteizko hirian. Aldiz, 1991. urtean egindako inkesta soziolinguistikoan -duda gabe, teknikoki fidagarriagoa- %7raino jaisten zen arabar euskaldunen ehunekoa.

Kopuru horiek abiapuntu dira Araban gaurdaino euskararen biziberritzean jorratutako bidearen ikuspegi betea izango badugu. Eta handia da egindakoa. Aurten aurkeztu diren VI. inkesta soziolinguistikoaren emaitzen argitan, Arabako euskaldunak populazioaren %19,2 dira 2016an.

Bidenabar, azpimarratzekoa da Trebiñu eranstea falta dela inkesta horretan, Arabako errealitate linguistikoa osorik ezagutzeko. Gabezia hori antzeman dugu oraingoz Eusko Jaurlaritzak plazaratu dituen emaitzetan: 2002ko, 2007ko eta 2012ko inkestak egin ziren bere garaian Trebiñun, baina egiteke dago oraindik 2017koa. Trebiñarren %22 euskaldun agertzen zen 2012ko inkestan. Beraz, bost urte geroago Araban den euskaldunen batez bestekoa baino altuxeagoa.

Eta euskararen ezagutza aitortu horretatik harago, erabilerari dagokionez, aztergai ditugu Soziolinguistika klusterrak VII. kaleneurketan Arabarako aurkeztu dituen ondorioak. Euskararen biziberritzean hemengo abiaburua zein izan den aintzat hartu behar dugu balorazioa ematean, baina, hala ere, argi-ilun guztiekin, ez dira guztiz gogobetegarriak. Gasteiz da euskal hiriburuetan bigarren emaitza jasoena biltzen duena (%3,7), Donostiako kaleetan euskarak duen erabilera-kalkulutik nabarmen urrun. Eta lurralde osoa harturik, Arabak du Euskal Herrian erabilera-maila apalena (%4,6). Atzerantz begiratuz gero, antzematen da erabilerak ez duela aurrera egiten -hamarren batzuk gorabehera-, katigatu antzean dagoela. Eskerrak gazteen artean euskara gehiago erabiltzen den (%5,2 Araban), baina, agerian denez, eskolan D edo B ereduetan ikasitako milaka haur eta gazte euskaldunen isla garbirik ez dago darabiltzagun emaitzetan. Aitzitik, argiro azaltzen da datuotan lehendik dakiguna: hizkuntzaren ezagutzak eta erabilerak ez dute zuzeneko korrespondentziarik. Bestela esanda, euskaraz jakiteak ez dakar (ez du bermatzen) ezinbestean euskara erabiltzea. Ebidentzia horren aurrean euskaltzaleok dugun arriskurik handiena etsitzea da. Zorionez, bada motiborik gaitz horretan ez erortzeko. Ahalegin kolektiboaren ondorioz -eta eskumena eta erantzukizuna duten erakundeen ekimenezazken hamarkadetan euskara biziberritzeko eman diren aurrerapausoak ukaezinak dira.

GAUR EGUN, ARABAKO EDOZEIN GIZARTE-ARLOTAN EDO LANBIDETAN AURKI GENITZAKE EUSKARAZ TXUKUN MOLDATZEN DEN GIZON, EMAKUME, BATEZ ERE GAZTE, EUSKALDUNAK. EUSKALDUN SARRITAN ANONIMO HORIEN EUSKARAZKO HARREMANSAREA SENDOTZEAN DAGO, HEIN HANDIAN, SOLUZIOAREN GILTZARRIA

Bidegurutze batera iritsi gara. Uste dut bat gatozela horretan gehienok. Hortaz, inoiz baino beharrezkoagoa zaigu orain artekoaz gogoeta egitea, lorpenak eta hobe beharrak bereizturik. Horretarako, berebiziko garrantzia du egungo euskaldunen tipologia zehazki deskribatzeak, horretan aldaketa handiak gertatu eta gertatzen ari baitira. Subjektua hobeto ezagututa, helburua izan behar du euskararen erabilera nabarmen haztea, lehentasun osoz gazteen artean, eta familia bidezko transmisioa sendotzea eta bermatzea. Hori da aurrez aurre dugun erronka, eta hil ala bizikoa da euskararen biziraupenerako.

Ez da inola ere zeregin erraza, baina Euskal Herrian badira horretarako aditu bikainak, atzerrian ere arlo horretan erreferente bilakatu direnak. Aditua barik, aritua nauzue nire bizitza profesionalean gai horietako batzuetan. Ikuspegi horretatik, baina pretentsio handirik gabe, buruan darabiltzadan pare bat gogoeta partekatzeko abagune izan daitezke lerro hauek.

Eskolak asko eman dezake eta ematen ari da. Ezinbestekoa da eskolaren lana, gazteen artean euskararen ezagutza zabaltzeko, baina eskolak ezin har dezake etxeko giroari edo lagunarteari dagokion esparrua. Derrigorrezkoa da eskola, baina ez nahikoa, batez ere, funtzio formaletatik harago, ikasle guztiak sendo euskalduntzeko eta euskara naturaltasunez erabil dezaten. Hau nabaria da, batik bat, soziolinguistikoki eremu erdaldunean bizi diren eskoletako ikasleen kasuan. Eta hori da gaurko euskaldun gazte gehienen tipologia linguistikoa: euskararen eta gaztelaniaren jabe dira (Arabaz ere ari naiz orain), baina gehiengehienak errazago moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino. Zer esanik ez, halako hiztunak gaztelania hobetsiko du bere mintzajardunean, euskararen kaltean. Ezagutza asimetriko hori euskararen erabilerarako galga da, eta berarekin dakar euskara eskola-eremura mugatuta uzteko hainbat gaztek duten joera. Asignatura hutsa bilakatzen zaie, atzerriko edozein hizkuntza izan daitekeen bezala. Kontestu horretan, nekez joango da erabilera ezagutzaren orpotik, bistan da. Eta zer irtenbide du horrek? Tamalez, erantzuna oso da konplikatua, batez ere, faktore askok eragiten dutelako kontu horretan. Hala ere, dudagabea iruditzen zait ahozkotasuna lantzeak leku gehiago hartu beharko lukeela, bai eskolan eta bai aisialdiarekin lotutako jardueretan, alor hori asko indartu behar baita oraindik, Araban bederen. Eta ez dezagun ahaztu, hezkuntza-sistemaz diharduguneanean, Lanbide Heziketaren arloan nabarmen mugatuagoa dela oraingoz euskararen hedapena. Leku gehiago behar du euskarak, eta agerikoa da, gainera, esparru horren garrantzia ondoren lan-munduan izango duen proiekzioagatik.

Bada beste gai bat, azkenaldian oihartzun zabala hartu duena foro politikoetan, komunikabideetan eta EAEko administrazioaren hizkuntza-politikaren eremuan. Euskararen erabilera erronka nagusia den sasoi honetan, badirudi fokua ezagutzan jarria duela zenbaitek, konkretuki euskara-egiaztagirien sisteman. Ukaezina da egiaztagirien kudeaketa egokia egitea oso garrantzitsua dela, baina ezagutzak ez du erabilera bermatzen, ezta ezagutza hori egiaztatzeak ere. Aurtengo datuen arabera, EAEko herritarren %12,6 inguru euskarako ziurtagiri baten jabe da. Horietatik, %59,4k EGA (C1) du, hau da, 1982. urtean Euskaltzaindiak eskumena Eusko Jaurlaritzari uztearen ondorioz sortutako agiria (ondoren, Nafarroako Gobernuaren esku ere utzi zuen Euskaltzaindiak eta azkenik Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak ere hartu du eskumena. Hirurek dute EGA izena, Euskal Herri osoan). Irlandan %12,6 hori baino askotxoz gehiago dira gaelikoaren ziurtagiridunak eta horrek ez die aurrerapenik ekarri erabileran. Nahitaezkoa da teknikoki ziurtatzea euskarako azterketa-ereduek ondo neurtzen dutela azterketarien hizkuntza-gaitasuna. Aldiz, ustezko gainditze-maila baxuaren izenean, azterketak errazteko eta eskakizun maila jaisteko tentazioan eroriko bagina, okerreko bidea hartzea litzateke. Hala egingo balitz, egiazko ezagutzari buruzko datuak desitxuratzen joango lirateke gerora begira eta, ondorioz, handitzen ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea.

Itxaropentsu amaitu nahi dut idazki hau, horretan sinetsita nagoelako. Gaur egun, Arabako edozein gizarte-arlotan edo lanbidetan aurki genitzake euskaraz txukun moldatzen den gizon, emakume, batez ere gazte, euskaldunak. Euskaldun sarritan anonimo horien euskarazko harreman-sarea sendotzean dago, hein handian, soluzioaren giltzarria. Lanean jarraitzea egokitzen zaigu, beraz, eta aurrera egitea, zailtasunak eta arriskuak zein diren jakinda.